

KALEKO SALMENTARAKO POSTUAK OKUPATZEKO BAIMENAK ARAUTZEN DITUEN BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN PLEGUA GUTUN-AZAL ITXIAN AURKEZTUTAKO ESKAINTZAREN ENKANTEAREN BIDEZ, ZERTARAKO-ETA JANARI AZKARRA SALTZEKO 2017KO KARMENGO JAIIETAN

1.- BAIMENAREN XEDEA

a) Hauxe da baldintza-agiri honen xedea: 2017. urteko Karmengo jaietan kaleko salmentarako postuak okupatzeko baimena jasotzea, janari azkarra saltzeko jabari publikoko lursailetan.

b) Esleipendunari okupazioaren baimena behin emanda, guztiz debekatuta dago baimena besterentzea. Arau hau ez betetzeak instalazioa ixtea ekarriko du, bai eta araua hautsi duen esleipendunaren baimena iraungitzea ere. Arau hauek hausten dituen esleipendunak baimena jasotzeko beste deialdi batzuetan parte hartzeko aukera galduko du, eta horrez gain, ordaindu beharko ditu indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen zehapenak.

c) Lurzoruak okupatzeko baimena epe jakin baterako da, eta ez du hurrengo edizioetarako lurzoruaren gaineko eskubiderik ematen.

2.- LEGITIMAZIOA ETA BALDINTZAK

Legez osatutako ahalmen juridiko eta jarduteko ahalmen osoa duten janari-saltzaile guztiek eskatu ahal izango dute janaria saltzeko postuak okupatzeko baimena, betiere hurrengo baldintza hauek betetzen badituzte:

1.- Adinez nagusia izatea. Lan egiteko adinez nagusia izatea onartzen da.

2.- Legez ezartzen diren ezgaitasun edo bateraezintasun kasuetako batean ere ez egotea.

3.- Jarduera Ekonomikoaren gaineko zergari dagozkion epigrafeetan izena emanda egotea eta horien ordainketetan zordun ez egotea.

4.- Gizarte Segurantzari dagokion erregimenean izena emanda egotea eta kuotaren ordainketan zordun ez egotea. Pertsona juridikoen kasuetan, enpresa gisa izena emanda egotea Gizarte Segurantzari, langileak afiliatuta izatea eta kuoten ordainketetan zordun ez egotea.

5. Emakida-prozesu honetan gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridiko guztiek hartu ahal izango dute parte. Horretarako eskariarekin batera eta esleipenaren aurretik, 10 urteko epean 2 azokatan gutxienez 2 egunez parte hartu izana egiaztatatu beharko dute.

6.- Saldu beharreko produktu eta instalazioei dagozkien arauak ezartzen dituzten baldintza higieniko-sanitarioak edo bestelakoak betetzea, eta bereziki horrelako produktuak maneiatzeko beharrezkoa den titulazioa izatea.

7.- Zergen betebeharrak egunean egotea.

8.- Atzerritarren kasuan, dagozkion bizileku- eta lan-baimenak jaso dituztelako egiaztagiria edo bertan bizi eta lan egiteko gaitzen duten beste edozein agiri izatea.

9.- Jarduera egiteagatik sor daitekeen arriskua barne hartzen duen erantzukizun zibileko aseguruia izatea.

10.- Salmentarako erabiltzen den furgoneta behar bezala egokituta izatea, garraio eta baimendutako produktuen salmentari ezartzen zaion araudiarekin bat etorritik.

Nolanahi ere, bete beharko da zerga-araudian, Gizarte Segurantzaren araudian, baliokideak diren Europar Batasuneko estatu-kideetako araudietan eta aplikatu beharreko guztietan ezarritakoa.

Baimenak indarrean dirauen bitartean aipatutako edozein baldintza galtzeak baimena iraungitzea ekarriko du.

3.- POSTU KOPURUA ETA MOTA

Plegu honen bidez bost postu esleituko dira kalean janari azkarra saltzeko 2017ko Karmengo Jaietako festa-gunean. Horien kokapena 1. eranskinean sartutako planoan ezarriko da.

Postuek hurrengo neurri hauek izango dituzte:

1. FURGONETA: 5,6 x 2,4
2. FURGONETA: 5,6 x 2,4
3. FURGONETA: 5,6 x 2,4
4. FURGONETA: 5,6 x 2,4
5. POSTUA : 5,17 x 2,6

1etik 4ra arteko postuetan bakar-bakarrik baimenduko dira baimendutako produktuen garraio eta salmentari ezar dakiekeen araudiari egokitutako furgonetak, betiere gehiengo neurriak gorde eta okupaziorako ezarritako ordutegiak betetzen badituzte.

5.postua, berriz, egunero desmuntatu daitekeen instalazioa izango da okupazio-epeak dirauen bitartean, eta pleguan ezarritako gehiengo neurriak eta ordutegiak gorde beharko ditu.

4.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Janari azkarra kalean saltzeak duen izaera berezia kontuan hartuta, horrelako produktuak egiten diren postuek baldintza higieniko-sanitario zein ezarri beharreko beren-beregiko araudietan ezarritako beste batzuk bete beharko dituzte, eta interesatuak hori guztiori zehatz-mehatz adierazi beharko du baimena eskatzen den unean oroit-txosten tekniko baten bidez. Oroit-txosten horretan adierazi beharko du egin nahi diren produktu-mota, instalazioaren baldintzak eta ezaugarriak, bai eta materialak ere. Janaria furgonetan saltzekotan jakinarazi beharko da deskripzioa eginda, adieraziz ibilgailuak zer nolako prestaera eta dotazioak dauzkan, araudi teknikoaren eta sanitarioen alderako.

Titularra eta baimendutakoa, hala badagokio, derrigor gorde beharko dituzte plegu honetan ezarritako baldintza eta mugak. Edonola ere, horrelako produktuak maneiatzeko beharrezkoa den titulazioa izan beharko dute. Esleipendunek ikusgai izango dute publikorako prezioen zerrenda. Horrez gain, kartelak ere ezarriko dituzte, non argi eta garbi azalduko den adin txikioei alkohola eta tabakoa saltzeko debekua.

Balizko istripuak ekidite aldera, plantxa elektrikoak, frijigailuak edo postuan egiten den janaria prestatzeko beharrezkoak diren bestelako tresnak babestuta egon beharko dira eta postuen erabiltzaileetatik eta instalazioak dauden pasealekuetan zehar dabilzanetatik urrun.

Debekatuta dago postuak instalatzea, baldin eta bertako jarduerak osasun publikoan arriskua eragiten badu, zarata kirrinkariak sortu edo egiten diren ekintzak indarreko araudiaren aurkakoak badira. Bakar-bakarrik musika jarri ahal izango da, baina postuaren barruan eta ez ozen, bertako langileen gozamenerako besterik ez.

Postuen titularrek garbi izan beharko dituzte bai okupazio-gunea, bai saltokiaren inguruko perimetroan 3 metroko azalera koipearen kontrakoa emanez, eta bai inguruak, postuaren erabiltzaileei eta hurbileko negozioen titularrei eragozpenik ez eragiteko. Ezin izango dute postu-gunean eta hortik gertu zaramarik bota. Hondakinak festa-gunean jarritako edukiontzietan bota beharko dira, kalterik egin gabe udalarentzat derrigorrezkoa ez den janari hondakinak kudeatzeko tratamenduari. Horrelakoetan kudeaketa postuaren titularrak hartu beharko du ardura bere gain. Gainera, postuaren ondoan zakarrontzi pare bat gutxienez ezarri beharko dira aipatutako Ordenantzan xedatutakoari jarraituz.

Baimenduko da aldeztatik prestatutako janari azkarra saltzea eta edarrietan bakar-bakarrik saldu ahal izango dira hurrengo zerrenda honetan azaltzen direnak: garagardoa, sagardoa, ardoa, freskagarriak eta ura. Katxien salmenta

debehatuta dago. Berriz erabiltzeko plastikozko ontziak erabiltzea proposatuko da eta beirazko edalontzi eta botilatxoak erabiltzea debehatuta egongo da.

Publikoari janaria saltzeko ordutegia honakoa izango da: ostiral, larunbat eta jai bezperetan 20:00etatik 04:30era eta gainontzeko egunetan 03:00etara. Ezin izango dira plegu honetan adierazitako ordutegitik kanpo ezarri.

Postuek behar bezala funtzionatzeko behar diren argindar-konexioak langile kalifikatuek egin beharko dituzte eta behar bezala babestuta egon beharko dira, publikoaren joan-etorritik urrun, eta edonola ere, 2,5 metro luzeko altuerako bide libre utziko du behe-tentsioko linearaino eta ez du ibilgailuen joan-etorria oztopatuko.

Edonola ere, instalazio-elektikoari buruzko ziurtagiria aurkeztu beharko dute, eskumena duen administrazioaren ereduaren arabera (Eusko Jaurlaritako Industria Saila) eta administrazio horrek berak bideratua, bai eta argindarra jasotzeko kontratuaren kopia ere, baldin eta argindarra korrante elektikoaren sarearen bidez jasotzen bada.

Esleipendunek ez dute inolako aparkaleku erreserbatu izango, beren edo langileen ibilgailuak jai-esparruan aparkatzea erabat debehatuta egongo delarik.

Erabiltzen dituzten produktuak zeliakoentzat gai diren adierazi beharko dute

Festa-gunean eta inguruetan ez da kalez kaleko inolako salmentarik baimenduko, Udalaren baimena dutenak salbu.

Ez da inola ere baimenduko okupatutako gunepublikoak manipulatu edota hondatzea ekar lezakeen inongo operaziorik. Horrelakorik gertatuko balitz, dagokion zehapena jarriko litzateke, eta horrez gain postuaren jabeak kaltetutako gunepublikoa konpondu beharko luke, baimena baliogabetuz.

Interes publikoko arrazoiak direla eta (segurtasuna, ordena publikoa, festa jardueraren garapena eta abar) janaria saltzeko xedez okupatu den gunepublikoa erabili beharko balitz, baimendutako titularrak egokitu zaion gunea libre utzi eta beste toki bat okupatu beharko du, betiere bideragarria bada eta Udalaren adierazpenei jarraituz. Egoera honek ez du inola ere kalte ordainik jasotzerik ekarriko. Festa-gunean beste toki bat okupatzea ezinezkoa balitz, ordaindutako zenbatekoei dagokien parte itzuliko litzaioke.

Baimenek dirauten bitartean, postuen neurriak eta kokapena bakar-bakarrik aldatu ahal izango dira eskumena duen udal organoak beren-beregi horrela erabakitzen bada.

Udala ez da suteak, zuhaitzen adarrak erortzeak edo beste edozein agente natural batek eragindako kalteen erantzulea izango. Udalak ez du esleipen-zenbatekorik itzuliko eguraldi txarrak eragindako arrazoiengatik.

Debekatuta dago postuak instalatzea, baldin eta bertako jarduerak osasun publikoan arriskua eragiten badu, zarata kirrinkariak sortu edo egiten diren ekintzak indarreko araudiaren aurkakoak badira.

Ezin izango da postua itxita izan salmenta ordutegian.

Ezin izango da baimena besterendu.

Esleipendunek arestian aipatutako baldintzetako edozein ez betetzeak zehapen-espeditatea abian jartzea eta baimena iraungitzea ekarriko du.

Esleipendunek portuak baimena ematean ezarri dituen baldintzak bete beharko dituzte.

5.- LIZITAZIO MOTA

Lizitaziorako prezio baxuenak honako hauek izango dira:

1. postua: 799,68 €
2. postua: 799,68 €
3. postua: 799,68 €
4. postua: 799,68 €
5. postua: 799,68 €

6. BAIMENAREN IRAUPENA

Okupazioa 2017ko Karmengo Jaiek dirauten bitartean egingo da, hau da, 2017ko uztailaren 14tik 23ra, eta ezin izango da luzatu. Baimena aipatutako jarduera horretarako baino ez da izango.

7.- PARTE-HARTZEKO ESKAERA ETA HASIERAKO DOKUMENTAZIOA

- 1.- Enkantean parte hartzeko, Santurtziko Udaleko Erregistro Nagusian eskaera aurkeztu beharko da, non 2017ko Karmengo Jaietako janari azkarra saltzeko postuen enkantean parte hartzeko asmoa agertu beharko den. Eskaeran salmentan jarriko diren produktuen zerrenda agertu beharko da, bai eta jakinarazpenetarako helbide elektronikoa bat eta bulego-ordutegian deitzeko moduko telefono zenbaki bat ere.
- 2.- Eskaerarekin batera, bi gutun-azal aurkeztu beharko dira: A gutun-azalean (administrazio-agiriak) parte-hartzailearen edo berorren ordezkariaren Nortasun Agiriaren kopia edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakia, bai eta azken 10 urteetan 2 azokatan gutxienez 2 egunez parte hartu dutela egiaztatzen duen

agiria ere. B gutun-azalean, berriz, proposamen ekonomikoa aurkeztu beharko dute, lizitazio-prezioa baino altuagoa bera, eta adierazi beharko dute furgoneta-postu baterako edo postu ibiltarirako aurkeztu diren. Furgoneta-postuaren kausan, zein tokitan egon nahi duten ere adierazi ahal izango dute.

- 3.- Eskura ematen diren gutun-azalak erregistroa zabalik dagoen ordutegian aurkeztuko dira. Egun eta ordu horren ostean aurkeztutako gutun-azal guztiak epez kanpo geratuko dira.
 - 4.- Lizitatuzaileek www.santurtzi.eus webgunean izango dute plegu honen kopia jasotzeko aukera, kontratatzailearen profilarren atalean.
 - 5.- Eskaerak aurkezteko epea 2017ko maiatzaren 10etik 19ra izango da, biak barne.
 - 6.- Posta bidezko gutun-azalak Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorraren 80. artikuluan xedatutakoa bete beharko dute eta ondorioz, lizitatuzaileak posta bulegoan bidalketa noiz egin den justifikatu eta Obra eta Zerbitzu arloari eskaria bidali duela jakinarazi beharko dio egun berean, faxa (94.483.91.94) edo telegrama bidaliz, edo unaiarrizabalaga@santurtzi.eus helbide elektronikora mezua idatziz eskaria bidalia duela jakinaraziz.
- Baldintza bi horiek bete ezean, ez da dokumentazioa onartuko baldin eta iragarkian adierazitako epea amaitu ondoren jasotzen bada.
- 7.- Epez kanpo aurkezten diren eskaerak ez dira izapidetuko.
 - 8.- Pertsona fisiko edo juridiko bakoitzeko eskaera bakarra onartuko da.

8.- DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA ETA LIZITAZIO-PROZEDURA

A gutun-azala

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean, lizitazio-mahaia osatuko da eta honek aurkeztutako agiriak kalifikatuko ditu.

Mahaiak ikusiko balu aurkeztutako dokumentazioak zuzendu daitezkeen akats edo hutsak dituela, interesdunari jakinaraziko dio Obra eta Zerbitzu arloaren bidez (ahal dela, *email*ez), eta gehienez 3 lan-egun emango dizkie dokumentazioa aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita, akatsok zuzentzeko.

Eskaera ez bada aipatutako epean behar bezala zuzentzen, interesdunak enkantean parte hartzeko eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

Lizitazio mahaia honako hauek osatuko dute:

Mahaiburua: Obra eta Zerbitzu arloko zinegotzi eskuordetua.

Ordezkoa: Hirigintza eta Ingurumen arloko zinegotzi eskuordetua.

Bokalak: Udal Zerbitzu Publikoen burua eta Funtsen kontu-hartzailea.

Ordezkoak: Zuzenbidean lizentzia duen Obra eta Zerbitzu arloko langilea eta Ekonomia eta Ogasun arloko funtzionarioa hurrenez hurren.

Idazkaria: Obra eta Zerbitzu arloko funtzionarioa.

B gutun-azala

Lizitzaile batek ere ez badu akatsik duen dokumentaziorik aurkezten, dagoeneko osatuta dagoen mahaia B gutun-azala irekiko du. Bestela, akatsak zuzentzeko epea amaitzen denean, mahaia berriro osatuko da zuzendu gabeko proposamenak onartu edota ez onartzeko, eta B gutun-azala irekitzeko.

Esleipena eta prezioa ordaintzea

Saio horretan Kontratazio Mahaia Obra eta Zerbitzu arloko zinegotzi eskuordetuari proposamenaren berri emango dio, eskainitako bi postu-motei (furgonetan eta postu ibiltaria) dagozkien prezioaren arabera aukeratutako eskaintza ekonomiko hoberena aurkeztu duten lizitzaileak baimendu ditzan.

Kanpoan geratuko dira prezioan igoera txikiena eskaini dutenak, kontuan hartuta prezio bakoitzeko postu kopurua (4 eta 1 hurrenez hurren). Mahaia lizitzaileei eskainitako furgoneta-postuen kokapena proposatzeko eskubidea izango du.

Postuak pertsona fisiko edo juridiko banari esleituko zaizkio eta lizitzaileei bakar-bakarrik esleituko zaie janari azkarraren salmenta-postu bana.

Proposatutako esleipendunak postuari uko egiten badio berau proposatu ostean, baina esleipena gauzatu aurretik, postu horretarako hurrengo eskaintza hoberena aurkeztu duen pertsona proposatuko da, aukeratua bera esleipendun gisa postu kopuruaren muga dela-eta proposatu ez ziren eskaintzen artean.

Esleipen proposamena lizitzaileei jakinaraziko zaie euren proposamenean adierazitako helbide elektronikoaren bidez 5 lan-eguneko epean 9. klausulan adierazitako dokumentazioa aurkeztu eta lizitazioaren zenbatekoa ordain dezaten. Dokumentazioaren aurkezpena eta aipatutako diru-sarrera ezinbesteko baldintzak izango dira baimena emateko, eta ez bada aipatutako epean ordaintzen, eskubidea iraungitzat joko da.

Esleipena zinegotzi eskuordetuak 5 lan-eguneko epean emandako dekretuaren bidez egingo da, aurkeztu beharreko dokumentazioa jaso eta ordaindu denetik zenbatzen hasita.

Lizitatzaleei esleipenaren berri emango zaie. Esleipenaren jakinarazpenean SP-KLTBren 151.4 artikuluan aipatzen diren alderdiak jasoko dira, eta jasotzaileak berau jaso duela frogatuta uzteko aukera ematen duen edozein bideren bitartez gauzatu ahal izango da, bereziki lizitatzaleek eskaerak aurkeztean emandako posta elektronikoaren bidez.

9.-AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA ESLEIPEN PROPOSAMENAK

A) Esleipen proposamenaren jakinarazpenaren ostean, esleipendunek Obra eta Zerbitzu arloan 5 laneguneko epean, enkantea egiten den egunetik zenbatzen hasita, hurrengo agiriak edo kopiak aurkeztu eta deskribatzen diren jarduketak egin beharko dituzte:

1) Parte hartzailearen edo bere ordezkariaren Nortasun Agiriaren fotokopia edo Atzeritarren Identifikazio zenbakia.

2) Lizitatzalea pertsona juridikoa bada, eraketa edo aldaketa eskritura Merkataritzako Erregistroan behar bezala izena emanda, baldin eta izen ematea galdagarria bada ezarri beharreko merkataritza-legediaren aginduz. Galdagarria ez bada, berriz, jarduteko gaitasuna eraketa edo aldaketa eskritura edo dokumentuaren, estatutuen edo eraketa egintzaren bitartez egiaztatuko da, non bere jarduera erregulatzen duten arauak jasota egongo diren. Agiriok dagokien erregistro ofizialean izena emanda egongo dira, hala badagokie.

Beste pertsona fisiko baten ordezkari gisa jardunez gero, ordezkapena eskatzailea bera bertaratu eta horixe adierazita egiaztatuko da, baldin eta eskatzailea pertsona fisikoa bada. Pertsona juridikoa bada, berriz, notario-ahalorde nahikoaren bidez, Jarduteko gaitasuna eraketa-eskrituraren bidez egiaztatu behar ez den elkarte eta bestelako erakundeen kasuan izan ezik. Horrelakoetan Erakundearen organoek euren Estatutuen edo eraketa-egintzaren arabera, beren-beregi horretarako hartutako erabakiak izango dira egiaztatzeko erabiliko den bidea.

3) Era berean, erantzukizunezko adierazpena erantsiko du, eta bertan adieraziko du Administrazioarekin kontratatuzko lege ezartzen diren baldintzak eta plegu honetan adierazitako baldintza guztiak betetzen dituela eta ez duela kontratatuzko debekurik, hori guztiori Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginean xedatutakoari jarraituz, onartua bera azaroaren 14ko 2011/3 Errege Dekretu Legegilean, hurrengo lerrootan adierazi bezala:

Pertsona fisikoen kasuan:

.....jaun/andreak (izen-abizenak),(e)ko bizilagunak (helbidea:), NAN/AIZ zenbakidunak, bere izenean (edo(r)en ordezkari gisa,(r)en bidez egiaztatua) eta telefono-zenbakia duenak adierazten du Administrazioarekin kontratua egiteko lege ezarritako baldintzak eta plegu honetan ezarritako baldintzak betetzen dituela eta ez duela kontratatuzko inongo debekurik Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu

Bateginean xedatutakoari jarraituz, onartua bera azaroaren 14ko 2011/3 Errege Dekretu Legegilean.

(Data eta eskatzailearen sinadura, eta ordezkariarena hala badagokio)

Pertsona juridikoen kasuan:

.....jaun/andrearen ordezkariak (izen-abizenak),
.....(e)ko bizilagunak (helbidea:),
..... NAN/AIZ zenbakidunak, enpresaren ordezkari gisa (izen soziala),
helbidea(e)an eta telefono-zenbakia
duenak, enkantea arautzen duen baldintza-pleguaren berri duela, adierazten du
Administrazioarekin kontratua egiteko legez ezarritako baldintzak eta plegu honetan
ezarritako baldintzak betetzen dituela eta ez duela kontratatzeko inongo debekurik
Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginean xedatutakoari jarraituz,
onartua bera azaroaren 14ko 2011/3 Errege Dekretu Legegilean.

(Data eta ordezkariaren sinadura)

4) Honako baimen hau garatzeko ezinbestekoak diren bitartekoak izan badituela egiaztatzen duten hurrengo agiri hauek aurkeztea:

- a) Elikagaiak maneiatzeko txartela edo salmentan lanean diharduten pertsoneri ezarri beharreko araudiak eskatzen duen titulazio baliokidea.
- b) Zergen betebeharrak egunean dagoela dokumentazioa. Pertsona juridikoen kasuetan, Gizarte Segurantzaren enpresa gisa izena emandako, haien langileek afiliatuak izandako, eta kuoten ordainketak eguneratuta egondako agiria.
- c) Eskatzailearen bi argazki, karnet neurrikoak
- d) Jarduerak dakarren arriskua estaltzen duen erantzukizun zibileko aseguruaren poliza eta azken errezioboaren fotokopia.

Eskatzaileak bere ordezkari beste pertsona bat baimenduz gero, arestian aipatu diren agiriei honako hauek erantsiko dizkie:

- a) Lan-harremana edo familia-harremana egiaztatzen duten agiriak. Azken kasuan,
- 4 b) puntuan dagoen dokumentazioa
- b) Izendutako ordezkariaren datu baimenduak: Izen-abizenak, helbidea eta telefono-zenbakia.
- c) Baimenduaren NAN edo AIZen fotokopia eta karnet neurriko 2 argazki.

Esleipendunak langileak kontratatzen baditu salmentarako, 4 a) eta b) atalen dokumentazioa jaien hasiera baino 5 lanegun lehenago aurkeztu ahal izango du.

5) Zergen betebeharrak egunean egoteko dokumentazioa.

6) Jarduera egiteak dakarren arriskua estaltzen duen erantzukizun zibileko polizaren zein aurtengo ordainagiriaren fotokopia

7) Eskaintzaren zenbatekoa ordainduta duela egiaztatzen duen agiria

8) 1, 2, 3 eta 4. postuak eskatzen badira, aurrekoek gain, beharrezkoa izango da ibilgailuaren zirkulazio-baimena, berau erabiliko duen langilearen gida-baimena eta ibilgailuak IAT eginda dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea. Agiri hauek guztiek indarrean egon beharko dute.

9) Nor bere konturako laneko baimena atzerritarra bada; edo egoitza-baimena, edo bertan bizi izateko eta lan egiteko gaitasuna ematen dion beste dokumentazioren bat.

B).- Aurkeztutako agiriren bat faltsua bada, jarduera itxi egingo da, horren ondorioz etor litezkeen lege-ekintzei ezertan eragotzi gabe.

Aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akats edo aipatu gabeko daturik balego, interesdunei Obra eta Zerbitzu arloaren bidez jakinarazi (ahal dela, *emailez*) eta beroriek zuzentzeko gehienez 3 laneguneko epea emango litzaieke errekerimendutik.

Eskatutakoa aipatutako epean behar bezala izapidetu ezean, lizitatuzaileak eskaintzan atzera egin duela ulertuko da eta hala bada, hurrengo lizitatuzailearen, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeran, dokumentazio bera eskatuko zaio.

C) Postuen esleipendunek, esleipenean parte hartze hutsarekin plegu honen oinarri guzti-guztiak onartzen dituzte.

D) Baldintza hauek ezinbestez bete beharrekoak dira eta beroriek ez betetzea baimena baliogabetzea ekar lezakete.

10.- INSTALATZEKO BAIMENA

Obra eta Zerbitzuetako Sailak, postua behin esleituta, identifikazio-txartel bat igorriko du, eta bertan postuaren datu guztiak adieraziko dira. Esleipendunak Udalean hartu ahal izango du, bertan esaten dioten egunean eta orduan.

Txartel horrek beti ikusgai egon beharko du instalatutako postuan. Esleitutako lekua finkoa eta aldaezina da; horregatik, debekatuta dago lekuz aldatzea, Santurtziko Udalak horretarako baimena eman ezean.

11.- KALEKO SALTZAILEEN BALDINTZAK ETA BETEBEHARRAK

Udalak postua festa-gunean instalatzeko baimena emandakoan, esleipendunak honako betebeharrak hauek izango ditu:

1. Udalak igorritako baimena azokaren antolatzaileei edota udal agintariei erakustea.
2. Oinarrietan eskatzen diren agiri guztiak eskuragarri izatea, langile baimenduek edonoiz egiazta ditzaten.

3. Obra eta Zerbitzuetako Arloko langile administratibo, tekniko eta postuaren okupazioa ikuskatzeaz arduratzen diren langileen esanak eta argibideak betetzea.
4. Baimenak dirauen bitartean janaria egun guztietan ikusgai izatea salmentarako.
5. Udalak emandako arauak eta baldintza-agiri honetan ezarritakoa betetzea.
6. Indarrean dauden lan-arauak betetzea (Gizarte Segurantzari buruzkoak, langileak kontratatzeari buruzkoak...).
7. Segurtasun-, eta higiene-arauak betetzea.
8. Postua zertarako baimendu den, horretarako erabiltzeko
9. Instalazioak pertsona guztiei, inolako diskriminaziorik gabe, erabiltzen uztea.

12.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Arau hauetan adierazitako betebeharrak ez betetzea arau-haustetzat hartuko da.

Obra eta Zerbitzuen Saileko zinegotzi eskuordeak, espedientea egin ondoren, emandako baimena indargabetu eta postuak zigilatu ahal izango ditu. Horrela, saltzaileei galaraziko die berau erabiltzea, harik eta edozein motatako arazoak konpondu arte; edo betiko, baldin eta baldintza-plegu honetan ezarri diren arauak hautsi badira.

Plegu honetan ezarrita ez dagoenerako atxiki beharko zaio Santurtziko udalerrian kaleko salmenta arautzen duen Ordenantzan eta gaiari ezar dakioken bestelako araudietan adierazitakoari.

13.- BAIMENA IRAUNGITZEA

Baimena iraungiko da 6. baldintzan adierazitako epea amaitu delako edo hurrengo hauek hautsi direlako: baldintza teknikoak, baimena emateko arrazoia izan ziren bestelako baldintzak, klausula hauetan ezarritako arauak edota organo-eskudunak emandako beste arau batzuk. Jarduera erabiltzaileentzat edo oinezkoentzat arriskutsua izateak ere ekar lezake baimena baliogabetzea.

